



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 3a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da albait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hemodialisiko Unitate bat eraiki dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretiradakion. Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Equipo Europaren “Zuhaitz bat, Europaren alde” ekimena babesten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Saharako herriaren Askatasunaren aldeko Martxarekin, 45 urte baino gehiago baitarama bake bila. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Kontuen Ganbera babestu egiten baitu, Nafarroako herritarrek berezkoa sentitzen baitute ehunka urte dituen erakunde hori. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, euskarazko hedabideentzako laguntzen deialdiari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacsia jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikas-turteetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa. Jabi Arakama Urriaga jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (15. or.).
- Galdera, azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabidei buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzei buruzkoa. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (17. or.).
- Galdera, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikulua babesean, José Javier Esparza Abaurrea jaunak lege proposamen bat aurkeztu du, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena (10-21/PRC-00001).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 212. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERA-BAKIA:

1. Indultu-grazia baliatzeko araei buruzko Legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duen Lege proposamena izapidetzeko onartzea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lege proposamena, indultu-grazia baliatzeko araei buruzko legea, 1870eko ekainaren 18koa, aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak grazia-eskubidearen egikaritzea esanbidez 62. artikuluko i) letran aitortzen duen arren, figura hori arautzen duen legea, 1870eko ekainaren 18koa, zeinak arauak jasotzen baititu indultu-grazia baliatzeko, duela 150 urte baino gehiagokoa da, eta bere jatorrizko testuak

garai hartako gizartea bezalako baten premiei erantzuten die.

Indarrean sartu zenez geroztik, lege horrek ez du ia aldaketarik izan orain arte, urtarrilaren 14ko 1/1988 Legean eta martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoaren azken xedapenetako lehendabizikoan jasotakoez aparte.

Horregatik behar da, lehenik eta behin, araua egokitu, zaharkituta geratu diren gai terminologiko batzuegatik edo Zigor Kodetik desagertu diren zigor eta eskala batzuen aipamenarengatik.

Urtarrilaren 14ko 1/1988 Legearen bidez egin zen aldaketak prozedura-eraberritzeak ekarri zituen, prozedura arinduz eta malgutuz, baina, aldi berean, indultu-emateari buruzko Errege Dekretua arrazoitu beharra bertan behera utzi zuen.

Horrenbestez, orain arte indultu-erabakiaren arrazoiketaren gaineko kontrol oro bazter utzi da, grazia huts-hutsezko egintza izategatik, eta errepikaturiko jurisprudentzia-ildo bat finkatu da, zeinaren arabera grazia-eskubidea indultuaren bidez egikaritzea bide judizialek kontrolatzeko moduko egintza gisa tankeratzen baita bai, baina soil-soilik horren mamitzearen eta izapidetzearen alderdi formalei dagokienez.

Indultuaren figura salbuespenezko baliabide bat da eta behar du izan, epaitegiek eta auzitegiek legeari jarraikiz zehazturiko zigor-erantzukizuna zeharo nahiz partzialki betearaztekoa, eta demokratikoki onargarria justizia, ekitatea edo lagungarritasun publikoa tarteko direla ematen denean bakarrik.

Botere publikoek esparru horretan jokabide arbitrario bat izatea ekiditeko modurik onena da exigitzea indultu ororekin, erabatekoa nahiz partziala, zehaztea Gobernuak zer arrazoi izan duen indultu hori emateko. Hots, exigitzea arrazoituak izan daitezkeen indultua emateko errege-dekretuak, jada aipaturiko 1988ko aldaketan bertan behera utzi zen baldintza hori berreskuratuz.

Beharrezkoa da, halaber, indultua emateko nahiz ukatzeko muga bat ezartzea, ez soilik zigortuaren ziurgabetasuna ez dadin denboran luza, baizik eta, gainera, ekidite aldera botere publikoek zorrozki orokorra den interesarekin zerikusirik batere ez duten beste interes batzuetan oinarrituriko izapidetze-egutegia ezar dezaten.

Bestalde, salbuespenezko baliabide hori delitu-tipo jakin batzuetan aplikatzea ezin da justifikatuta egon. Jokabide horiek sortzen duten erabateko arbuioaren agerpen areagotua da zigortu horiek indultua jaso ahal izan dezaten ekiditea.

Azkenik, indultu erabatekoa nahiz partziala emateak ezinbesteko izan behar du epaia eman duen magistratu edo auzitegiaren adostasuna. Ez auzibidera itzultzeko modu gisa hartua, baizik eta erregearen izenean emandako epaiak erregeak egikaritutako indultuarekin kontrajartzeko modu gisa.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten dira 1870ko ekainaren 18ko legearen artikulua, jarraian adierazten diren indultu-grazia egikaritzeko arauak ezarri.

Lehen. 1. artikuluari testu berria ematen zaio. Honela geldituko da:

“1. artikulua.

Zilegi izanen da orotariko delituen errudunak indultatzea, lege honetako salbuespenak eta xedapenak errespetatuta, delitu horiengatik jaso duten zigorraren osotasunerako edo parte baterako”.

Bigarrena. 3. artikuluari testu berria ematen zaio. Honela geldituko da:

“3. artikulua.

Ez da zilegi izanen indultu osoa edo partziala ematea honako kasuetan:

- a) Erailketa-delituak.
- b) Genero-indarkeriarekin zerikusia duten delituak.
- c) Gizaki-salerosketaren delituak.
- d) Sexu-askatasunaren aurkako delituak.
- e) Adingabeen sexu-esplotazio eta prostituzio-koak.
- f) Tortura-delituak eta osotasun moralaren aurkako beste delitu batzuk.
- g) Alderdi politikoen finantzaketa ilegaleko delituak.

h) Kargu publikodun hautetsiek edo administrazio publikoetako nahiz sektore publiko instituzionalako goi-kargudunek beren eginkizun publikoaren jardunean edo horretaz baliaturik eginiko ustelkeria politikoko delituak, beraiantzako edo hirugarren batentzako onura ekonomikoa lortzea xede dutenak.

i) Asaldaketa-delituak, Koroaren aurkako delituak, albaramendu-delituak eta traizio-delituak.

j) Terrorismo-delituak.

k) Jendeen zuzenbidearen aurkako delituak, genozidioa eta gizateriaren aurkako delituak”.

Hirugarrena. Honako testu hau izanen du 5. artikulua:

“5. artikulua.

Indultu-ebazpena deuseza izanen da eta ez du efekturik sortuko, eta dagokion auzitegiak ez du betearazten ahaliko, baldin eta ez badu esanbidez aipatzen, gutxienez ere, zein zigor eta ondorioren gainekoa den grazia, eginiko delituak, kasua bada ezarritako zigorraren betearazpen-egoera, egozpen-titulua, indultu-eskabidearen jatorria eta, azkenik, Gobernuaren aburuz zer arrazoik justifikatu duen indultu-ematea”.

Laugarrena. 11. artikulua testu hau izanen du:

“11. artikulua.

Ezinbestekoa izanen da magistratu edo auzitegi epai-emailearen iritziz arrazoiak egotea, justiziakoak, ekitatekoak, onura publikokoak edo zigortuaren birgizarteratze egokiari dagozkionak, indultu erabatekoa nahiz partziala eman ahal izateko”.

Bosgarrena. 12. artikulua testu hau izanen du:

“12. artikulua.

Gainerako kasuetan, partziala besterik ez da emanen, eta lehenetsiko da ezarritako zigorra konmutatzea hain astuna ez den beste batekin, Zigor Kodeak aurreikusten dituen zigor-mota ezberdinen artean.

Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, aintzat harturiko zigor-mota ezberdinak osatuko dituzte askatasunaz gabetzeko zigorrak, beste eskubide batzuek gabetzekoak eta isunak.

Aurreko paragrafoan xedatua ezertan galarazi gabe, zilegi izanen da, halaber, zigorra bestelako batekin konmutatzea horretarako behar adina merezimendu dagoenean, auzitegi epai-emaileen iritziz”.

Seigarrena. 18. artikulua testu hau izanen du:

“18. artikulua.

Indultu-ematea errebokaezina da izaeraz, emate horretan ezarri diren klausulei jarraikiz, salbu eta ematean esanbidez ezarritako baldintzak urratuz gero”.

Zazpigarrena. 30. artikulua testu hau izanen du:

“30. artikulua.

Indultu-ematea, zein ere den mota, Errege Dekretu arrazoitu bidez eginen da, zeina Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita. Horretan adieraziko dira justiziako, ekitateko, onura publikoko edo zigortuaren birgizarteratze egokiarekin loturiko zein arrazoi dauden, Gobernuaren iritziz, indultua emateko. Halaber, aipatu Errege Dekretuak jaso beharko ditu lege honen 5. artikuluan aipaturiko gainerako inguruabarrak.

Indultu-emate edo -ukatzea zigortuari jakinaraiziko zaio, erabakiaren arrazoiak ere adierazita, eskatzen denetik 6 hilabeteko epean”.

Zortzigarrena. 32. artikulua testu hau izanen du:

“32. artikulua.

Indultu-eskabide edo -proposamenak ez du bere horretan etenen betekizun den epaiaren betetzea, salbu eta auzitegi epai-emaileak hala erabakitzen duenean”.

Bederatzigarrena. Legearen eguneratze terminologikoa:

Ordeztu egiten da, 22. eta 24. artikuluetan, “probintziako gobernadore”ari eginiko aipamena

beste honekin: “Gobernuaren ordezkariordea probintzian, edo autonomia erkidegoko agintari eskuduna ordena publikoaren alorrean”.

Hamargarrena. Xedapen gehigarriak testu hau izanen du:

“Xedapen gehigarria.

Gobernuak Diputatuen Kongresuari urtero igorriko dio indultu-emateei eta indultu-ukatzeei buruzko txosten bat, halako moduz non indultu-kopuru eta -mota, zer delituren gainekoa den, indultu-emateen arrazoiak edo indultu-ematearen edo -ukatzearen arrazoi desberdinen interpretazioari aplikatzen zaizkion irizpideak aztergai izanen baitira. Horren ikuskapenaren ondoren, Justizia ministroak agerraldia eginen du urtero Diputatuen Kongresuko Justizia Batzordearen aurrean”.

Hamaikagarrena. Xedapen iragankor bat gehitzen da.

“Xedapen iragankorra. Izapidetzen ari diren espedienteak.

Lege honek indarra hartzen duenean izapidetze-bidean dauden espediente guztiei lege hau aplikatu beharko zaie”.

Hamabigarrena. Azken xedapen bat gehitzen da.

“Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege honek indarra hartuko du Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean”.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Oinarrizko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Oinarrizko Laguntzari buruzko Ekintza Plan bat gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

COVID-19aren krisiak agerian utzi eta larriagotu ditu Osasun Sistema Publikoan jada detektatutako egitura-arazoak; zehazkiago, arian-arian okertuz doan Oinarrizko Osasun Laguntzakoak, non beharrezkoa baita presako hainbat jarduketari ekin.

Esku hartzeko eta erabakiak hartzeko unea da. Analisia eta diagnostikoa eginda daude, eta aldaketak behar dira epe motzean eta ertainean, sinesgarritasuna emateko, profesionalak motibatzeko eta osasun-eragilearen eginkizuna biziberritzeko gaixoen nahiz herritarren begietan.

Osasun Departamentuak Oinarrizko Osasun Laguntzarako jarduketa plan bat aurkeztu zuen iragan martxoaren 18an. Eragile sozial eta politikoen ustez, plan hori zehaztugabea da eta gabezia handiak dauzka helburuen definizioari, proposamenera garapenari eta aurrekontu-konpromisoari dagokionez.

Maiatzean, Osasun Zuzendaritza Nagusiak laneko dokumentu berri bat aurkeztu du. Dokumentu horrek Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan konpondu beharreko arazorik urgentenetako batzuk bideratzeko hobekuntza nabarmenak eskaintzen ditu; esate baterako, osasun laguntzarako irisgarritasun-oztopoen monitorizazioa eta jarraipena, edo osasun etxe berriak eraikitzeko aurrekontu-konpromisoa.

Etorkizuneko lan-ildoaren definizio zehatzagoa ere eskaintzen du; interesgarriak, baina al bait las-teren gauzatu beharrekoak.

Bestalde, oraindik ere falta dira Oinarrizko Osasun Laguntzaren balio nuklearrak sendotuko dituzten neurri koherenteak: luzetarakotasuna, irisgarritasuna, integritasuna, ikuskera jeneralista, koordinazioa, jarraitutasun asistentziala, gaixoarentzako orientabidea, gaixoen, familien eta erkidegoen ahalduntzea, eta osasuneko determinatzaileen abordatzea.

Urgentea da Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalekin zerikusia duten alderdiei heltzea. Neke profesionala handia da Oinarrizko Osasun Laguntzan, eta horrek motibazioaren galera gero eta handiago dakar eta, ondorioz, osasun-laguntzaren kalitatea jaistea. Lanpostu hutsak lehenbailehen betetzea, fidelizazioa eta Oinarrizko Osasun Laguntzako lana balioan jartzea berandu gabe jorratu beharreko afera nuklearrak dira.

Herritarren aitzinean eta herritarrekin ere lan egin behar da. Gure ustez, herritarrek Oinarrizko Osasun Laguntzarekiko atxikimendu falta kezka-

garria ari dira erakusten, zeinaren oinarrian funtsean baitaude arreta presentziala jasotzeko zailtasunak eta probetarako nahiz kontsultetarako ospitaleetako itxarote-zerrendak gero eta handiagoak izatea.

Erabaki proposamena:

– Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua eta haren mendeko erakunde autonomoak premiatzen ditu honako hauek egin ditzaten:

Lehen. 2021eko ekainaren 30 baino lehen:

1. Oinarrizko Osasun Laguntzako Ekintza Plana garatu, aurrekontu-konpromiso eta guzti, aldaketa estruktural eta funtzionalak lortzera bideratutako helburuak zehatzago definituta, kronograma eta ebaluazio-adierazleak zehaztuta. Hori dena Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalekin adostu eta erabakiko da.

2. Arretaren gutxienez % 60 presentziala izanen dela bermatu osasun etxe guztietan, eta batbateko kontsulta-eskarien % 100 bi egun baino lehenago artatuko dela ere bai.

3. O-NOZeko kudeatzaileak ebazpen bat eman, Oinarrizko Osasun Laguntzako profesional guztientzat aldi baterako osagarri bat ezarriko duena.

4. Kontratuen plan bat ezarri, beren prestakuntza-aldia bukatzen duten egoiliarrek eta erizaintzako graduatu berriek jarraitzea bermatuko duena.

5. Herritarrei zuzendutako komunikazio-estrategia bat taxutu eta garatu, balioan jartze aldera Oinarrizko Osasun Laguntzako lana, zerbitzuak (osasun-karpeta, sartzeko modalitate berriak) behar bezala erabiltzea, pandemia dela-eta dauden mugak ulertzea, profesionalekiko eta haien antolamenduarekiko konfiantza sustatzea, eta haien inplikazioarekiko eta parte-hartzearekiko konpromisoa.

Bigarrena. 2021eko irailaren 30a baino lehen:

1. Oinarrizko eskualde bakoitzerako plantillak dimentsionatzeko proposamen bat egin, etxek

etxeko laguntza nahiz gizarte-egoitzetako jasoko dituen zerbitzu-zorro bat, osasunaren sustapena, arreta komunitarioa eta ikastetxeetako bermatuta. Oinarrizko Osasun Laguntzan lanbide-profil berriak sartu: psikologia, fisioterapia, osasun publikoa eta osasun-kudeaketa.

2. 2019tik hona bata bestearen ondoko kontratu gisa mantentzen diren egiturazko 100 lanpostu baino gehiago sendotu plantilla organikoan. Hala ere, COVID-19aren larrialdirako jada kontratatutako erizaintzako 110 lanpostuak, administrazioko 14 langileak eta gizarte-laneko 5ak plantilla organikoan sendotu, atxikitze-zentroak, funtzioak eta eginkizunak aldeztu aurretik zehaztuta.

3. Oinarrizko Osasun Laguntzako 450 lanposturen eskaintza publikoaren deialdia egin 2021ean, dauden lanpostu hutsen ehuneko 80 sendotzeko.

4. Araudia aldatu, osasun-mailetan sartzeko aldeztu gizarte-laneko langileak eta OOLTko administrazio-langileak.

Aurrekontu-konpromisoa, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorretan Oinarrizko Osasun Laguntzara bideratutako finantzaketa, bi urtean, Osasun Departamentuaren aurrekontu osoaren ehuneko 25 izan dadin.

Hirugarrena. 2021eko abenduaren 31 baino lehen:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide bereziari buruzko 11/1992 Foru Legearekin lotutako araudia aldatzeko proposamena aurkeztu Nafarroako Parlamentuan, ordainsari-osagarriak aldatuta, Ospitaleko Laguntzarekin parekatzeko.

2. Osasunari buruzko foru lege berri baten zirriborroa aurkeztu Nafarroako Parlamentuan, osasun-laguntza unibertsal, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzeko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 24an

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da al bait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita al bait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

2018ko maiatzean, Modou Khadim senegaldarri Ribaforadako udaletxera joateko hitzordua eman zioten, "bere erroldatzearekin lotutako izapide bat konpontzeko". Modou Khadimek hamar urte baino gehiago zeraman bizitzen Espainian, eta artean Nafarroako herri horretako bizilaguna zen. Udaletxera joan zenean atxilotu egin zuten, eta polizia-etxera eraman zuten Polizia Nazionaleko agenteek. Gero, 48 ordu bete orduko, bere jaioterrira bidali zuten, inolako laguntza juridikorik ez bestelako jarduketarik egin gabe.

Iaz, Arartekoak honako ebazpen hau eman zuen: "Itxurazko estakuru batekin egindako zita-

zioa, bere kanporatzea ahalbidetze aldera interesduna atxilo hartzeko xedez, ez dator bat administrazioaren jarduna arautzen duten printzipioekin, eta ez ditu errespetatzen ukitzen dituen zeinahi administrazio-prozeduratan interesdunek dauzkaten eskubideak".

Arartekoak orobat ondorioztatu zuen alkateak bere funtzioetan neurria gainditu zuela, Khadimen erroldaren datuak Tuterako Atzerritartasunaren Tokiko Brigadari ematean, zeinak bai baitzekien Modou Khadimek kanporatzeko agindu bat zeukala, Gobernuaren Cadizko Ordezkariordeztza emana. Legearen arabera, ordea, ordezkariordeztza horrek EINen bidez lortu behar zuen informazio hori.

Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak adierazi duenez, Ribaforadako Udalak "leialtasunik gabe" jokatu zuen, eta amarruz lagundu zuen bizilagunaren kanporaketan. Hori dela-eta Ribaforadako Udalarari adierazi dio "ahozko legitimazioa baino ez zeukan helburu baterako baliatu dira datu pertsonalak, datu horien eta zitazio horren tratamendu zilegirako balio lezakeen zio juridikoa akreditatu gabe".

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du al bait lasterren taxutu ditzan Modou Khadim Ribaforadara lehenbailehen itzultzeko behar diren prozedurak.

2. Nafarroako Parlamentuak Ribaforadako Udala premiatzen du al bait lasterren azter dezan ea legeak zer aukera ematen duen Modou Khadim, udal horren bulegoetan atxilotua Espainiatik kanporatua izateko, Ribaforadara itzul dadin, eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuarekin lankidetzan aritu dadin aukerarik onena bilatzeko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Hemodialisiko Unitate bat eraiki dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Hemodialisiko Unitate bat eraiki dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Dialisia giltzurrunerako ordezko terapia bat da, giltzurruneko arazoak dituztenei ahalbidetzen diena odoleko hondakin eta isurkiak ezabatzen, kanpoko iragazki baten bidez. Dialisiaz ari garenean, ospitaleko hemodialisia zein etxekoa eta

peritoneala hartu ohi ditugu kontuan. Gau egun, Nafarroan 360 inguru lagun ari dira sistema horiek erabiltzen eta arreta jasotzen Iruñeko Osasun Barrutian eta Tuterakoan, non berriki hasi baita eraikitzen hemodialisiko zerbitzu berria.

Zoritxarrez, Lizarrako Osasun Barrutiak ez du García Orcoyen ospitalean bertako biztanleei arreta emateko hemodialisi zerbitzurik.

Eskualde horretako gaixoez etengabeko lekualdaketen desabantailen zigorra pairatu behar dute, eta egunen erdia eman bidaia nekagarrietan, guztiz tratamendu gogorrek jasan ondoren, lau ordutan hemodialisi makina bati lotuta egotea eskatzen dutenak.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Hemodialisiko Unitate bat eraiki dezan Lizarrako García Orcoyen Ospitalean, behar diren materialez eta giza baliabideez hornituta Lizarrako Osasun Barrutiko gaixo guztiei arreta emateko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Hemodialisiko Unitatea eraikitzeko azterlana aurten, 2021ean, lizita dezan eta lanak 2022an has ditzan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorezko Legioaren saria erretira dakion.

HERRITARREKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Herritarrekiko Harremanetako Batzordean izapidetu dadin Mikel Asiain Torres jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita egin beharreko zuzemen guztiak egin ditzan Frantziako Gobernuaren aitzinean, Francisco Franco diktadoreari Ohorez-

ko Legioaren saria erretira dakion. Mozioa 2020ko urtarrilaren 31ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-20/MOC-00013)

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Equipo Europaren “Zuhaitz bat, Europaren alde” ekimena babesten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak aho batez adierazten du Equipo Europa gazteen elkarte europazale eta apartidistaren “Zuhaitz bat, Europaren alde” ekimena babesten duela, eta honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

1. #ZuhaitzbatEuroparenalde ekimenarekin bat egitea sustatzea Nafarroako udalen artean.

2. Jasangarritasunari buruzko kontzientzia soziala areagotzea toki esparruan.

3. Gazteek tokiko jasangarritasuna lortzeko duten funtsezko zeregina aitortzea.

4. #ZuhaitzbatEuroparenalde ekimena sustatzea Parlamentuaren komunikazio instituzionalean, webgunean eta sare sozialetan”. (10-21/DEC-00029).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Saharako herriaren Askatasunaren aldeko Martxarekin, 45 urte baino gehiago baitarama bake bila.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bere osotasunean bat egiten du Saharako herriaren Askatasunaren aldeko Martxarekin, 45 urte baino gehiago baitarama bake bila.

Nafarroako Parlamentua, zeina erakunde eza-guna baita saharar herriaren eta Aljerian errefuxiatuta dauden biztanleen defentsarekiko konpromiso iraunkorragatik, erabat atxikitzen zaio ekimenari, eta pertsoneri nahiz kolektiboari dei egiten die horrekin bat egin dezaten.

Nafarroako Parlamentuak ekimen horretan aukera bat dakusa saharar herriaren egoera ikusarazteko, Marokok Mendebaldeko Saharan egindako okupazioa gaitzesteko, lurralde horretako natur baliabideen espoliazioa salatzeke eta Nazio Batuei nahiz nazioarteko gainerako eragileei exigitzeko deskolonizazio-prozesuaren burutzean erabakitasunez esku har dezaten.

Nafarroako Parlamentuak gogorarazten du, Espainiak, Lurraldeko potentzia administratzaile gisa, orain de iure, bere gain hartu zuela Nazioarteko Komunitatearen aurrean “saharar populazioaren interesak babestea eta bere erakunde politikoak garatzea, Gobernu propioaren osotasunera eramateko”.

Nafarroako Parlamentuak gogorarazten du Marokok ilegalki okupatzen duela Mendebaldeko

Sahara, eta ez zaiola lurralde horren gaineko inolako subiranotasunik aitortzen.

Nafarroako Parlamentuak erabateko konbenzimendua dauka Mendebaldeko Saharako auziak bere horretan dirauela sahararrei beren askatasun eta autodeterminaziorako eskubide zilegiak ukatzen zaizkielako.

Nafarroako Parlamentuak bere indar guztiarekin gaitzesten ditu Marokoko Erresumak saharar populazioaren aurka oro har, eta giza eskubideen defendatzaileen aurka zehazki, Sahara okupatuan eginiko errepresio-egintzak, bizileku-bortxaketak, bizileku-setioak, eraso fisikoak, torturak, larderiak eta derrigortze fisikoak.

Nafarroako Parlamentuak kezkarik handiena adierazten du beren askatasunerako eskubide zilegiak erreibindikatzeko dituzten sahararren desagerpenen eta kartzelaratzeko bidegabeengatik, eta saharar preso guztiak berehala askatzea eskatzen du.

Nafarroako Parlamentuak ez du inolako justifikaziorik ikusten Marokok Mendebaldeko Saharan gauzatzen dituen errepresio-egintzen inguruan daukan zigorgabetasunerako.

Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Mendebaldeko Saharako egoera gertutik jarraitzeko”. (10-21/DEC-00030).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Kontuen Ganbera babestu egiten baitu, Nafarroako herritarrek berezkoa sentitzen baitute ehunka urte dituen erakunde hori.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du Kontuen Ganbera, Nafarroako herritarrek berezkoa sentitzen baitute ehunka urte dituen erakunde hori, kontu eta kudeaketa publikoa kontrolatzeko erakundeen sorrerari begira erreferentia dena.

2. Nafarroako Parlamentuak espresuki aitortzen du Nafarroako Kontuen Ganberak egindako lana, herritarrei kontrol politikoa eta segurtasun juridikoa eskaintzeko balio izan duena.

3. Nafarroako Parlamentuak errespeturik erabatekoena adierazten die haren lanari eta jarduketari”. (10-21/DEC-00031).

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, euskarazko hedabideentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, euskarazko hedabideentzako laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Euskarazko hedabideentzako laguntzen deialdia, praktikan, aparteko finantzaketa publikorako iturria da komunikazio-enpresa eta -negozio gutxi batzuentzat. Zergatik?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko Castillo de Javier hotelak jasotako laguntza ekonomiko publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuaren zein laguntza ekonomiko jaso ditu Iruñeko Castillo de Javier hotelak azken bost urte hauetan?

– Pandemiaren ondorioak arintzeko Nafarroako Gobernuak gaitutako zuzeneko laguntzen paketearen onuradun izan al da?

– Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik eskatu al du osasun- eta ekonomia-krisiaren ondorioz?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 25ean

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

JABI ARAKAMA URTIAGA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jabi Arakama Urriaga jaunak aurkezturiko galdera, Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Jabi Arakama Urriaga jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoan 2019-2020 eta 2020-2021 ikasturteetan matrikulatutako ikasleen kopurua.

Informazioa herrien eta eskaintako espezialitateen arabera —bai “lehentasunezko irakaskuntzari” dagozkionak, bai “prestakuntza pertsonalari” dagozkionak— banakatuta bidaltzeko eskatzen da.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Jabi Arakama Urriaga

Galdera, Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruzkoa.

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko galdera, Vianako Defontaine Ibéricari emandako laguntza publikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan eza-

rritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso ditu azken hamar urteetan enpresaren itxiera berriki iragarri duen Vianako Defontaine Ibéricak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzazatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+B laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+B jarduerengatik) kenkariak, inbertitzeagatik kenkaria, bestelako kenkariak...) eta zer zenbatekoak aplikatu ditu Defontaine Ibérica enpresak, azken hamar urteetan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

Galdera, azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, azpiegitura proiektuak betetzean zuhaitzak mozteari eta basoberritzeko proiektuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Azken urteotan herri-lanetan egin diren zenbait inbertsio publikok berekin ekarri dute zuhaitz-mota ezberdinak –zenbaitetan, modu masiboan– moztea. Gero eta lege eta araudi gehiago onesten dira mozketamota horiek arautzeko eta, halatan, baso-masak nahiz hirietako zuhaitzak berak babesteko.

Nafarroan, adibidez, Abiadura Handiko Trenaren obrak edo N-121-A errepidea 2+1 errepide bihurtzeko obrak egitean zuhaitz ugari moztu dela jakin izan dugu.

Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 23. artikulua honako hau dio

“1. Interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke proiektuetan oihan azalera gutxitzerik agertzen bada, ukitutako eremurako basoberritzeko edo

basoa lehengoratzeko proiektua erantsiko da, gutxienez ere okupatuko den lur saila adinako azalera batean.

2. Oihan administrazioak aztertu egingen du interes publikoko azpiegiturak eraikitzeke proiektuek hondatu edo urez hartuko luketen oihan azalera, eta aginduzko txosten loteslea emanen du horiekin batera aurkezten zaizkion basoberritzeko edo basoa lehengoratzeko proiektuen egokitasunari buruz”.

Hori guztia ikusita, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1.- Basoberritzeko zenbat proiektu aurkeztu zaizkie Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari nahiz Gobernuko bestelakoei 2008tik hona, oihan azalera gutxitzea zekarten interes orokorreko azpiegiturak eraikitzeke proiektuekin batera?

2.- Zeintzuk ziren proiektu horiek? Horien artean al zeuden Abiadura Handiko Trenaren obrak edo N-121-A errepidea 2+1 errepide bihurtzeko obrak egitekoak?

3.- Gobernuak kalkulatu ala inbentarioa egin al du jakiteko zenbat zuhaitz moztu den Nafarroan 2008tik hona herri-lanak edo azpiegitura proiektuak egitearen ondorioz? Zenbat izan dira eta nola banatzen da mozketamota hori?

4.- Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuari igortzeko Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketarik, basoberritze-proiektuak kontrol-tresnak hobetuz egiten direla bermatzeko?

5.- Gobernuak ba al du asmorik Parlamentuari igortzeko Nafarroako oihan ondarea babestu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen aldaketarik, hirietako zuhaitzen babesa eta sustapena ere jasotzeko?

Iruñean, 2021eko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabideei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabideei buruzkoa zen, eta 2020ko

urriaren 30eko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-20/POR-00340).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzeei buruzkoa.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNeko, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Mayumana taldearen emankizunaren aurretik gertatutako istiluei eta Foruzaingoak izandako esku-hartzeei buruzkoa, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publi-

koko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin. Galdera 2021eko apirilaren 20ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. (10-21/POR-00185).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroara bideratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00160), idatziz erantzutekoak:

“1.- Nafarroak zenbat diru jasoko du, Justiziako azken konferentzia sektorialean onetsitako irizpideei jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik, arlo horretako Europako 2021eko laguntzen parte gisa? 2.- Departamentuak zer proiektu bultzatu nahi ditu funts horiekin 2021ean zehar?”

3.- Zer aurrekontu eta egutegi dauka proiektu horietako bakoitzak?”

Kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Nafarroako Gobernuak guztira 517.896 € jasoko ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik.

Kopuru horretatik, 473.092 euro bideratuko dira Foru Komunitateko judizio-areto guztietako ekipamendu digitalaren eta ikus-entzunezkoaren hobekuntza burura eramatera. Zehazki, Justizia Zuzendaritza Nagusiak asmotan duen jarduketaren eskutik, aurrez eraturiko judizio- eta frogareto guztiak, Nafarroako epaitegi desberdinetan

banatuta dauden 37 areto guztira, bideokonferentzia propioa eta nahaste- eta soinuaztapen-sistema hobeak izanen dituzte besteak beste. Gaur den egunean, horrelako ekipamendua areto horietako 27k daukate (Iruñeko 11k, Tuterako 4k, eta bina aretoak Lizarran, Tafallan eta Agoitzen).

Funtsek helburu izanen dituzten ekintzak dira Justizia 2030en “0 Proiektua” deritzonak Nafarroarentzat duen mamitzea. Proiektu horrek jomuga du oinarrizko azpiegitura digitalak hedatzea, eta barne hartzen du berehalakotasun digitalarekin, lanpostuaren deslokalizazioarekin, herritarrentzako arretarekin eta zibersegurtasunarekin zerikusia duena.

Funtsen gainontzekoari dagokionez Justizia Zuzendaritza Nagusiak duen aurreikuspena da wifirako 27 sarbide-puntu paratzea Iruñeko Justizia Jauregian (aurreikusitako inbertsioa: 38.445 €), edo Justizia Administrazioako langileen lan baldintzak hobetuko dituen materiala erostea (hasierako aurrekontua: 5.890 €).

Ikus daitekeenez, inbertsio horiek dagokion lizitazio-prozesutik pasa behar dute; horrenbestez, jarduketan egutegia prozesu horren arabera izanen da. Dena den, lizitaziorako prestalana abian direnez jada, espero da 2021eko bigarren seihilekoan amaituta egon dadila, eta orduan ekinen litzaioke exekuzioari. Aipatu funts-deialdiaren baldintzei jarraikiz, lan guztiak 2022ko ekainaren bukaera baino lehenago exekutatuta eta justifikatuta egon beharko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. fakturari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00164), idatziz erantzutekoak:

“1.- Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren konfiguraziorako, berrikuntzarako eta jarraipenerako beharrezkoak diren elementuak eta edukiak sortzeari buruzko aholkuak emateko laguntza teknikoaren kontratuaren 2. faktura 2020ko abenduaren 14an ordaindu zen, nahiz eta kontratuan bertan ezartzen zen “Kulturen arteko Bitartekaritza Zerbitzuaren jarraipenerako eta ebaluaziorako gida” ematean eginen zela ordainketa, eta hori ez zen 2021eko otsailaren 15era arte gertatu. Zergatik?”

2.- Departamentuak zergatik ez zuen gida hori 2021eko otsailaren 1era arte eskatu, gida emateko epea 2020ko abenduaren 30ean bukatu arren?”

3.- Gida emateko epean izandako atzerapen hori kontuan hartu al da hasiera batean adostutako diru kopurua murrizteko?” Galdera horiek dire-

la-eta, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak honako erantzun hau ematen du:

Parlamentari jaunak aipatzen duen faktura 2020ko kontabilitate-ekitaldian aurreikusitako epean ordaindu zen; izan ere, kontratu horren xede den lana egokiro egin izaten ari zen ekitaldi horretan, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek batera.

Kulturarteko Bitartekaritzako Zerbitzuaren Jarraipen eta Ebaluazio Gida, lan horien emaitza formalak zena, gero entregatu zen, parlamentari jaunak bere galderan adierazi bezala; baina horren prestaketara bideraturiko lan guztiak artez egin ziren.

Zeregin horietarako kontraturiko pertsonen Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiar informalki eta 2020ko abenduaren 30a baino lehenago jakinarazi zioten ezen atzerapenez entregatuko zela gida. Ez zen premiatze formalik egin entregatze-epeei buruz, uste baitzen zerbitzuen jardun normala ez zela atzerapen horrekin kaltetzen, dokumentu hori Bitartekaritza Zerbitzuaren kontratu berria lizitatuta egon ondoren erabili beharrezkoa zelako (gaur den egunean lizitazio-prozesuan dago).

Hasiera batean adosturiko kantitatean ez da beharrezko egin, Gidaren entregatzeak izandako atzerapena beharrezko horretarako kausa ez dela jo baita. Atzerapenei onespena eman zieten Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko teknikariek, eta kontratua osoki burutu da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

